

**BERGARAKO BARATZE PARKEKO 63. LURSAILAREN ERABILERA BAIMENTZEKO
BERGARAKO UDALA ETA "JARDUN EUSKARA ELKARTEA" ren ARTEKO
HITZARMENA.**

Begaran 2024ko maiatzaren 23an,

BILDUTA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkatea, Bergarako San Martin Plaza, z/g-ean egoitza izan eta P-2007900-J I.F.K. zenbakia duen Bergarako Udalaren izenean, M^a Concepción Ugalde Izeta Udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestetik, Miren Etxeberria Jauregi 72313638M NAN zenbakia duena, G-20339107 IFK izan eta Oxirondo plaza 2 helbidean egoitza duen Jardun Euskara elkartearen ordezkartzan.

Bi aldeek elkarri hitzarmen hau sinatzeko ahalmena aitortu eta

AZALTZEN DUTE

1.- Jardun Euskara elkarteak baratze ekologikoen parkean partzela bat ustiatzea eskatu duela elkartearen helburu diren garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko eta pertsonen bizitza sozial eta komunitario aberatsaz gozatu ahal izateko.

2.- Eskaera hori ikusita eta jarraian zehaztutakoa kontuan izanda, erabaki dela Bergarako baratza parkeko 63. lursaila esleitzea Jardun Euskara elkarteari aurrez ikastaroa egin eta dagokion fidantza ezarrita udal diruzaintzan, eta bi aldeen betebeharrak zehazten dituen hitzarmena sinatuta:

- Bergarako baratze ekologikoen esleipen eta kudeaketarako ordenantzak ordenantzaren aurrekarietan honakoa diola:

Begarako Udalak zenbait udal partzela herritarren eskura jarriko ditu aisialdirako baratze modura erabiltzeko. Udalak modu horretan aisialdi aktiborako eta inklusiborako topagune bat sustatuko du, gizatalde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak nahiz belaunaldi ezberdinen arteko trukea bultzatzeko; eta, aldi berean, nekazaritza ekologikoari bultzada bat emateko.

- Aipatutako ordenantzaren 7. artikulua e) atalean honako hau jasotzen dela:

Integrazioaren, sozializazioaren eta gizarte-kohesioaren printzipioa: Hiri-baratzeek balio sozial handia dute parte-hartzaileentzat; izan ere, denbora betetzeko aukera



ematen diete, harreman berrien sare bat sortzen laguntzen dute eta bizi-kalitatea hobetzen dute, osasunerako oso positiboa den jarduera fisikoaren bidez. Ingurumenarentzat ere balio handia dute udalerrientzat; hain zuzen ere, berdegune publiko berriak bihurtzen direlako, non baratzea da protagonista, eta lurrarekiko harremana erraztu egiten dute.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat egokitutako baratze batzuk erreserbatu ahal izango du udalak. Eskaririk ez badago, baratze horiek kupo orokorrera pasatuko dira.

- Ordenantzaren 12.1 artikulua honako hau dioela:

Aisialdiko baratze ekologikoak okupatzeko, erabiltzeko eta etekina ateratzeko eskumena emango duen baimenak emateko prozedura lehiaren bidez izango da, baratze kopurua mugatua baita. Dena den, arau hori ez da ezarriko Udalak interes taldeek erabiltzeko gorde ahal izango dituen lursailen erabilera espezifikorako.

- Ordenantzaren Xedapen gehigarriak azkenik honako hau diola:

Intereseko taldeei udalak adjudikatu ahal izango die, hitzarmen bidez, haientzat udalak erreserbatutako espazio batzuk, dagokien hitzarmenean zehaztutako baldintzetan, eta adjudikatutakoan elkartean ere sartu beharko dira eta ordenantza honetan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

3.- Jardun Euskara elkarteak langile batek ikastaroa egin duela eta fundazioak fidantza ere ezarri duela.

Gauzak horrela, honako klausulak dituen hitzarmena adostu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Begarako Udalak Jardun Euskara elkarteak Begarako baratza parkeko 63. lursaila erabiltzeko baimena ematen dio honako baldintza hauekin eta Jardun Euskara elkarteak onartzen du:

1. Lursailaren erabilera lagapena egiten da hitzarmena sinatzen denetik hasita 2024ko abenduaren 31ra arte da, eta urtez urte gehienez, 2026ko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango da.
Gehieneko lagapen epearen barruko urteko luzapenak, adostutzat hartuko dira baldin eta aldeetako edozeinen aurretiko abisu idatzirik ez badago hilabete bat lehenago lagapena edo hurrengo luzapenak amaitu aurretik.
2. Elkarteak, lagapen epearen azken hilabetean baratzea garbi utzi beharko du, hurrengo esleipendunak lantzeko moduan.
3. Jardun Euskara elkarteak une bakoitzean indarrean dagoen tasa ordaindu beharko du eta tasa hori izango da Baratze publikoaren erabileragatik ordenantza fiskaletan ezarritakoa.





4. Jardun Euskara elkartearen sortuko den partzelen erabiltzaileek sortuko duten elkarteko kide izan beharko da eta elkarteak adostutakoa bete beharko du.

BIGARRENA: Aurreko puntuan zehaztuta ez dagoenean Bergarako baratze ekologikoen esleipen eta kudeaketarako ordenantzak zehaztutakoa aplikatuko da. Fundazioak aitortzen du Ordenantza ezagutzen duela eta bertan jasotako baldintzak beteko dituela.

Eta adostasun frogagisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dudalarik.



Gorka Artola Alberdi

Begarako Alkatea



Miren Etxeberria Jauregi

“Jardun Euskara elkartearen”ko Lehendakaria

Maria Concepcion Ugalde Iceta
Idazkaria

